



PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA

«Txapela jantzita ingurukoekin ospatzea da niretzat bukatzeko erarik politena»

ELDUAIN ▶ Binakako Faustino Txapelketa irabazi du Patxi Zeberio Auzmendirekin batera

MARKA ▶ Bosgarren txapela lortu du Zeberio II.ak eta, hala, Elizalde zuen marka berdindu ▶ 6



Patxi Zeberio elduaindarra, pozarren, finala amaitutakoan, larunbatean, Galarretan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

ANOETA ▶

Dantza-sokaren ekitaldia antolatzeko bilera

Izena eman ez dutenei ere deialdi berezia egin diete antolatzaileek ▶ 4

LEITZA ▶

Aurrera, lehen postuari ertsiz

3-1 irabazi dute Beti Kasedanoren aurka, Arkixkilen ▶ 7

TOLOSA ▶

Bigarren aldiz eman diote su altzari denda bati

2004an izan zen lehena, eta ostiral gauean bigarrena; familiak salatu du ▶ 2

ASTEASU ▶

Mendi Astea gaurtik, Joxan Azkueren omenez

Mendizalearen errautsak zabalduko dituzte larunbatean, Zelatunen; hitzaldi eta proiektioez gain, rokodromoa inauguratu egingo dute igande goizean ▶ 4

POLITIKA ▶

Bigarren aldiz eman diote su altzari denda bati Tolosan

2004ko otsailean izan zen lehena, eta ostiral gauean bestea; familiak salatu du



Ostiral gauean su eman zioten bigarren aldiz altzari dendari. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosako altzari denda bati bigarren aldiz eman diote su. Donostia hiribideko 7. pabilioian dagoen Carmen Olanok altzari denda «kiskalita» agertu zen orain bi urte, eta ostiraletik larunbaterako gauean «berriz ere saiatu ziren gauza bera egiten». Su eman bai, baina ez zuen kalte handirik eragin, denbora gutxiren buruan bere kabuz itzali zelako. Senitartekoez diote 2002. urtearen hasieran Belauntzan piztu zen aferarekin zerikusia dutela denda horri birritan egindako «erasoek», eta, lehendabizikoan isilik geratzea erabaki bazuten ere, bigarrenaren ostean gertaera komunikabideen aurrean salatzea «behartuta» daudela, «ordezkari politikoez eskualde honetan gertatzen

ari diren injustiziei erantzuteko ordua badelako».

Larunbat eguerdian, altzari dendako arduradunak bertara joan zirenean konturatu ziren berriz ere dendari su eman ziotela. Edo horretan saiatu zirela. «Lehendabizikoaren modu bera erabili dutela dirudi; aurrekoan guztia erretzea lortu zuten, eta babes neurriak hartu genituen haren ostean. Horregatik ez dute berriz ere emaitza bera lortu ahal izan», esan dute dendaren jabeek.

Ertzaintza gertaera ikertzen ari da 2004ko otsailetik. Izan ere, oraingoa «denda honek jasaten duen bigarren eraso» da. Aurrekoa 2004ko otsailaren 23an «jasan» zuen. Pabilioia osatzen duten 3 solailuak «erabat kiskalita» geratu ziren orduan. Carmen Olanok aintzianerari edo altzari zaharber-

DATUA ▶



Aurreko aldian, erreta. HITZA

LEHENDABIZIKOA

2004ko otsailaren 23an. Su eman zioten altzari dendari, eta erabat kiskalita geratu ziren pabilioiak dituen hiru solairuak. Kalte handiak eragin zituen suteak, barruan zegoen ia guztia erre zuelako.

rrituak saltzen zituen bertan, eta gertaera horrek «familia oso baten hondamendi ekonomikoa eragin zuen».

Bigarren aldi honetan denda erre ez bada ere, saiakerak «helburu berbera» zuela diote familiako iturriek, «sarrerako atea indarrez puskatu zutelako eta barruan eta kanpoaldean su zantzuak zeudelako». Bi urtez «ezinbestean geldirik egon eta gero», hemendik bizpahiru hilabetera berriz ere denda zabaltzeko asmoa zutela adierazi dute dendako jabeek, baina «bitan egin badute, hirugarrenez ere egin dezaketela, eta horren aurrean inolako babesik ez dutela».

«Etengabeko jazarpena»

Carmen Olanok Belauntzako Erroizpe talde independenteko kidea da bere sorreratik, eta ordutik, hau da, 2002ko urtariletik hona «etengabeko jazarpena jasaten ari» direla adierazi du.

«Zergatik eta zertarako suntsitu nahi gaituzte?»

Etxebeste Olanok sendiak prentsa oharra bidali zuen atzo HITZARA, beren egoeraren berri emanez. *Bi aldiz erreta. Zergatik? Zertarako?* dioen pankarta zintzilikatu dute dendaren kanpoaldean. Hauxe dio, zehazki, igorritako idatziak:

«Zergatik eta zertarako suntsitu nahi dute Belauntzako familia bat? Hauxe da 2004ko otsailaren 23an gure buruari egin genion galdera, eta hauxe bera da 2006ko urtarrilaren 14an berriz ere egin dioguna. Bi urteren buruan bitan erre digute gure denda. Ez gara idatzi honetan arrazoiak eta zergatiak gu ematen hasiko; hori dagokionak egin beharko luke. Idatzi honen helburua gertaera zehatz batzuk sala-

tzea da, eta, bide batez, gure sendia jasaten ari den gehiegizko jazarpena, hondamendia eta etengabeko erasoak salatzea.

Baditugu arrazoiak horretarako. Duela 2 urte isilik geratu ginen, ez genuen jazarpen hau komunikabideetan islatu. Baina gure dendak bigarren aldiz jasan duen erasoak behartu egiten gaitu komunikabideen aurrean salaketa hau egitera.

Utz gaitzate bakean, alderdi politikoez eskualde honetan gertatzen ari diren egoera injustu hauek guztiak aintzat har ditzatela eta dagozkien gogoetak egin ditzatela. Guk gure herrian bakean bizi eta lan egin nahi dugu, ez besterik». ◀



Dendaren kanpoaldean zintzilikatu duten pankarta. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

SASKIBALOIA ▶

Itxura hobetu arren, porrota Aralarrentzat, Gernikan

Alde handia atera zuen aurkariak eta 83 eta 58ko emaitzarekin amaitu zen partida

ERREDAKZIOA

«Partida indartsu hasi arren, aurkariaren maila onak eta epaileen zalantza erabaki batzuk ez zieten utzi senio- rrei garaipena lortzen eta amaieran merezi ez zuten aldearekin galdu zuten». Gisa honetara laburbildu daiteke Tolosa Aralar taldeak iragan asteburuan jokatuako partida. Gernika KESB taldea izan zuten aurrez aurre tolosarrekin etxetik kanpo jokatuako norgehiagokan, eta 83 eta 58ko emaitzarekin garaipenaren puntuak etxean geratu ziren.

Partida bide onetik hasi zen. Aurkariak ez zuen erraz saskiratzen eta tolosarrak beste batzuetan baino hobeko zebiltzan. Honen guztia- ren lekuko izan zen amaiera- ko laurdenaren emaitza, 16 eta 19, Tolosako alde. Bigar- ren laurdenerako, gernika- rrek ez zituzten gauzak garbi ikusten eta ordurarte jokatu ez zuten jokalaririk indartsue- nak zelaian agertu ziren. Atsedendariaren ostean de- fentsa indartu zuten tolosa- rrek, eta 14 eta 12ko partziala lortu zuten. Baina azken lau- dena aldean handitzeko soilik baliatu zuten gernikarrek. Hala, «merezi ez zuten» po- rrota jaso zuen Aralarrek.

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoalde, punturik gabe Zaragozatik

Aukera gehiago izan arren 6 eta 2 galdu zuen Zaragoza aurkari zuzenarekin

ERREDAKZIOA

Sailkapeneko azken postueta- tik ihes egin nahian dabilen Za- ragoza taldea izan zuen aurrez aurre Hegoalde Zaragozan (Espainia), eta aragoarrek har- tu zuten oraingoz lasaitua par- tidua irabazi eta gainera lau goleko alde lortuta Liga amaieran zuzeneko aurkari izan litekeen Hegoaldereko. 6 eta 2 bukatu zen partida.

Zaragozaren aurka jokatzeko «garrantzitsua da oso haiei aurre hartzen ez uztea», baina tolosarrek ezin izan zuten eki- din lehen zatia 2-0 galduz amaitzea. Lehen gola korner bateko jokaldian egin zuten etxekoek, eta bigarrena lehen zatia amaitzeko 10 segundo besterik falta ez zirenean egin zuten.

Kolpe horri buelta emateko aproposa izan zitekeen bigar- ren zatia hasi eta berehala, 10 segundora, Anek sartu zuen gola. Handik minutu bakar ba- tera, ordea, hirugarrena egin zuen Zaragozak, eta aitaren ba- tean beste hiru ere sartu zituz- ten. 3 eta 1ekoa lehen goleko jokaldia errepikatuz egin zuen Monik, beste behin Hegoalde- ko jokalariren akatsez baliatu- ta. Han hautsi zen partidua; aragoarrak euren ate ondoan

itxi ziren 12 metroko defentsa lanean, eta aukera zutenean kontraerasoan atera eta min egin zuten. 4 eta 1ekoarekin Larreak eskatutako huts tarte- ak ere ez zuten balio izan.

Baloi jabetzan Hegoalde na- gusi izan zen, partidua maneia- tu zuten, gol aukera gehiago izan zituzten —38 jaurtiketa Hegoalde, Zaragozak 25—, baina 6 eta 2 galdu zuten.

Neurketa amaieran Hegoal- deko jokalaririk eta teknika- riak burumakur, porrot honen garrantziaz jabetuta. Baina au- rera begira gauzak aldatuko diren ustea galdu gabe. Isa Bar- rriok gaurkoarekin bete du lau partiduko zigorra eta jada jo- katzeko moduan da, datorren asteburuan Miriam Arana ere jokatzeko prest izango da; eta, bestalde, Nerea Aranak den- boraldia amaitu arte taldean aritzeko konprometua hartu du. Lehen itzuliko azken neur- keta izango da datorren aste- buruan jokatu dena. Hegoal- dek Femesala Elx hartuko du; iazko Liga irabazlea aurten ez dabil oso fin, eta horretaz ba- liatu nahiko du Hegoalde jada oso beharrezkoak dituen pun- tuak batzeko. Eta bigarren itzu- liko lehen neurketa ere etxean jokatu dute tolosarrek, Cor- dobaren aurka.

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainen gol festa Elgoibarren aurkakoan

Fin aritu ziren Egizabalen mutilak partida «erraza» batean; 11 gol sartu zituzten

ERREDAKZIOA

Larunbatean Elgoibarko Olai- zaga kiroldegira joandako za- letuak Laskorain ikastolakoek eskaintako gol festaren leku- ko izan ziren, erraz hartu bai- tzuten mendean sailkapeneko azken postuetan kokaturik dagoen San Pedro-Kenci tal- dea. Hain zuzen ere, 3 eta 11ko emaitzarekin amaitu zuten partida tolosarrek.

Norgehiagoka uste baino errazagoa suertatu zen haien- tzat; izan ere, elgoibartarrak aspaldiko ezagunak dituzte eta garai batean osaturiko tal- de sendo eta indartsuaren manuak guttiz uxatu gabe zeuden oraindik Egizabalen mutilen oroitzapenean.

Partidua berehala jarri zen maldan behera, Barriola «pu- xika margolariak» 0 eta 2koa ezarri baitzuen bi gol bikainei esker; eta etxekoek gol bati esker abantaila murriztea lor- tu bazuten ere, Murgi, Telle eta Ekhi arduratu ziren lasaitasu- na ezartzeaz. Horrela, asede- naldian 1 eta 5eko emaitzare- kin bi taldeek aldageletarako bidea hartu zuten.

Bigarren zatian ere talde bakarra izan zen kantxan, el- goibartarrak gora etorri ziren, baina laskoraindarrek. «Egi- zabal maixuak azaldutako esanei aditu ondoren», etxe- koen presioa gainetik kendu eta zenbait kontraeraso «hil- garriren» ostean, arerioak er- dietsitako beste bi golak eze- rezen utzi zituzten. Saldiasek

bitan, Barriolak beste bitan, Telletxeak eta Yustosek itxi zuten markagailua. 3 eta 11ko emaitza zabalari esker tolosa- rrek 3 puntuak poltsikoratu zi- tuzten.

Aipamen berezia merezi du Barriola jokalaririk; izan ere, partidua bikaina burutzeaz gain, 4 gol ere egin zituen. Ha- laber, ezin ahaztu Ekhi eta Murgi beheko taldeko «harri- bitxien parte-hartze erabaki- garria», biek ere gol banare- kin borobildu baitzituzten be- ren minutu txukunak.

Kokapen «erosoa» taulan

Garaipen honen ondoren, tal- dea sailkapeneko postu ero- soetan da lehenengo itzulia bukatzeaz dagoenean. Dato- rren astean Lo Bederatzi tal- deko mutilek bisitatuko dute Usabalgo kiroldegia; partidua esker; eta etxekoek gol bati esker abantaila murriztea lor- tu bazuten ere, Murgi, Telle eta Ekhi arduratu ziren lasaitasu- na ezartzeaz. Horrela, asede- naldian 1 eta 5eko emaitzare- kin bi taldeek aldageletarako bidea hartu zuten.

Larunbatean Elgoibarren Javi delegatua, Egizabal entre- natzaileak eta Domentxe, Te- lletxea, Saldias, Barriola, Yus- tos, Alonso, Amatriain, Kalixto, Ekhi eta Murgi jokalariek es- kuratu zuten garaipen garran- tzitsua.

Harrobiko taldeei dagokie- nez, jardunaldi txarra izan zu- ten bi taldeek; izan ere, Jorgek zuzentzen duen filialak 3 eta 1 galdu zuen; Murruak zuzendu- takoak, berriz, 3 eta 5eko emaitza lortu zuen etxean.

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ANOETA ▶ KULTURA



Aurreko urtean egindako dantza-sokan neskek egindako desafioaren une bat. HITZA

Dantza-sokaren ekitaldia antolatzen bilera berezia, bihar

Asteroko entseguarekin batera egingo dute; bestalde, bihar izango da oraindik izena eman ez dutenen azkeneko aukera

ERREDAKZIOA

Iaz bezala, aurten ere Anoetarrok Auzolanean plataformako Kultura Taldeak antolatu du anoetarren dantza-soka. Kaldero Egunean egingo dute, otsailaren 18an. Larunbat horretan, herriko jendeak base-rriz baserri pasatuko du eguna, batean eta bestean dantza eginez. Eguerdian parte hartzen jarraituko dira dantzari guztiak, eta bertan egingo dute dantza, herriko plazan, bazkal aurretik batzuek eta bazkalondan besteek. Bazkalosteko dantza emanaldiaren ondoren, erromeria egingo dute frontoian.

Hori guztia, otsailaren 18an. «Baina egun horretan festa taxuz egiteko, beharrezkoa da aste luzetako lana», azaldu dute antolatzaileek. «Horregatik, bada hilabete herritar talde handi bat buru-belarri lanean ari garela. Antolakuntza lanean, entseguetan... Dena abian da dagoeneko».

Prestaketa lan horiei buruz, bi ohar egin nahi dituzte dantza-sokako antolatzaileek. Dantza zerrendetan izena eman dutenei lehenengoa, oraindik animatu ez direnei bigarrena. Lehenengoei, biharko deia egin nahi diete, entsegua egingo baitute 19:00etan, Edurkan, astero bezala. «Baina

aste honetakoa ez da entsegu soila izango: dantza-soka egunerako antolaketan gauza asko lotuko baititugu, bilera batean. Bereziki, zerrendan izena eman dutenen parte-hartzea konfirmatuko dugu: bilerara azaldu ezin denak eman diezaiola abisua bertara azalduko den baten bati», zehaztu dute.

Bigarren oharra oraindik izena eman ez dutenentzat da. Dagoeneko 80 lagunetik gora bildu dira aurten, festa honi aurre egiteko. «Inoiz baino jende gehiago gara, eta ezin ukatuko dugu horrek ematen digun poza. Hala ere, oraindik animatu ez den norbait balego, dudatan dagoena, edo azkeneko momentuan ateratzea erabaki duena, asteazken honetako bilera izango du azkeneko aukera. Izan ere, bertan itxiko ditugu dantzarako zerrendak. DBHko 1. mailetik gorako edonork har dezake parte, gazte zein heldu». Horra, bada, antolatzaileek anoetar guztiei egingo dako gonbita.

iragarki laburrak ▶

LANA

Haur zaintzailea. Neska euskaldun bat behar du haurren zaintzaile gisa. Deitu 679 33 32 45ra.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Urtarrila maldan gora egiten den hilabetea omen da. Nola ari zaizu egiten zuri?

GUTUN@K ▶

Asteasuko alkatea ez al da EAkoa?

Joan den abenduaren 31n Aiztondo bailarako hainbat udalek euskal preso politikoen elkartasunez deituriko manifestazioan izan nintzen, eta Asteasuko herritarrek ere bertan ikusteak asko poztu ninduela esan behar dut. Hala ere, manifestazioan nindoan bitartean honako galdera egingen nion neure buruari... Asteasuko alkatea ez al da Eusko Alkartasuneko?

Izan ere, urtez urte manifestazio hau Aiztondoko bost udalek deitzen dute (Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Alkizakoak), eta betidanik bakar baten hutsunea nabaritzen da; Asteasukoarena, alegia, baita azkeneko honetan ere.

Urteak daramatza Asteasuko alkateak euskal presoaren egoeraren aurrean ez ikusiarrena egiten, baina bitartean bere alderdikideak euskal presoek Euskal Herrian egon behar dutela esaten ari dira (ahoz, behintzat, bai). Honela, Gizarte, Justizia eta Lan sailburu Joseba Azkarragak euskal presoek eskubideak dituztela dioen bitartean, Asteasuko alkateak alderdi politiko berbera ordezkatzu beste aldera begiratzen du.

Ez dut ulertzen jarrera hau, eta Asteasuko herritarrei zer pentsatua eman behar digula iruditzen zait. Edozein kasutan, beti dago okerrak zuzentzeko aukera, eta hurrengo Eguberrietan Asteasuko Udala ere manifestaziorako deitzaileen artean ikusi nahiko nuke.

NAROA GERESTA ▶
ASTEASU

ASTEASU ▶ MENDIA

Joxean Azkue omenduz, IX. Mendi Astea gaurtik

Ekitaldien artean, mendizale asteasuarraren errauntsak zabalduko dituzte Zelatunen

ERREDAKZIOA

Abenduan egitekoa zen Asteasuko XI. Mendi Astea bertan behera gelditu zen Joxean Azkue antolatzaile eta mendizalearen heriotza zela eta. Mendi Astea berriz ere antolatzea erabaki dute orain, eta mendizale asteasuarrarentzako omenaldia bihurtuko da. Azkue izan zen Mendi Astearen sustatzailea, eta bera izan zen ere abenduan egitarauaren antolatzailea.

Gaur ekingo diote, hala, XI. Mendi Asteari, Migel Mari Elosegiren hitzaldi batekin. *Akabo Pirinioetako hartzak* du izenburua, eta zine aretoan entzun ahal izango da, 20:00etatik aurrera.

Etzi, hilak 19, Ina Rufok emanaldi bat eskainiuko du, *Europaz Haraindi, Ipar lurmuturretik Tarifara* izenburupean; eta, aurrekoa bezala, zine aretoan izango da, 20:00etatik aurrera.

Larunbatean izango da ekitaldi berezia. Joxean Azkue hainbeste aldiz egin eta sustatutako mendi ibilbidea burutuko dute, Asteasu-Usarrabi-Zelatun bidea egiten duen PR-GI 76a, hain zuzen ere. Irteera 09:30ean izango da herriko plazatik. 12:00ak aldera, Zela-

tunen, Joxean Azkue zenaren errauntsak zabalduko dituzte.

Igandean, rokodromoaren inaugurazioa egingo dute. Orain gutxi jarri dute frontoian eskalada egiteko lekua, eta Mendi Astearen baitan egin nahi zuten inaugurazioa. 11:00etan izango da ekitaldia. Ondoren, Aitor Usonek eskaladazko segurtasunari buruzko informazioa emango du eta baita eskalada erakustaldia egin ere.

Beharrezko informazioa jaso ondoren, Aiztondoko I. Eskalada Topaketa egingo dute. Ez da lehiaketa izango, baizik eskalatu nahi duen guztiarentzat irekitzen den aukera proba egiteko. Adin guztiei zuzenduta dago eta bukaeran oroiarri bat emango diete parte-hartzaileei.

Mendi Astea bukatzeko asteaburua bat antolatu dute Pirinioetan, otsailaren 11 eta 12rako. Ondoko argibideak eman dituzte: Piedrafita de Jakako aterpean afaria, gosaria eta lo egitea dohainik izango dute asteasuarrak; garraioa bakoitzak berea antolatu behar du eta han mendia, iraupen eskia edo pistako eskia egiteko aukera izango da. Izen-ematea, otsailaren 3ra arte, liburutegian.

PILOTA ▶

Tolosaldeko pilotariak Euskal Herriko bi txapelketatan hasiak

Zazpi-Iturri eta Aurrera-Saiaz pilota eskolek Udaberriko eta Euskal Herriko Kluben Artekoan emaitza gazi-gozaok



Eskualdeko pilotari batzuk lehengo urteko txapelketan. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Asteburu honetan hainbat partida jokatu dituzte eskualdeko pilota eskolek, alde batetik Bidegoian-Tolosako Aurrera-Saiazek, eta bestetik Amezketa Zazpi-Iturri eskolak. Biak ere hiru txapelketatan ariko dira jokoan: *Berria* eskuz binakako Txapelketan, Udaberriko Txapelketan eta, azkenik, Euskadiko Kluben Arteko Txapelketan. Azken hau, gogoan izan, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan lehendabiziko eta bigarren postuetan geratzen zirenek jokatuko dute, eta dagoeneko Tolosaldeko pilotari dezente bertan ari dira.

Horrela izan da Aurrera-Saiaz kasua; izan ere, eskuz binakako bikote aski ezaguna ari da senior lehenengo mailan (elite ere esaten zaio): Mikel Belloso eta Jabí Oteiza. Igandeko partidari erraz irabazi zuten, berritua ere maila ona erakutsiz, eta joko polita eginez, gainera.

Orokorrean esan beharra da Euskadiko Kluben Txapelketan ez dela emaitza onegirik lortu, baina eliten dabilen bikotearen garaipenak asko balio du. Au-

rrera-Saiazek emaitza hobek lortu ditu Udaberriko Txapelketan: lau partidetatik hiru irabazi dituzte, hirurak senior kategoriako lehenengo eta bigarren mailan. Garaipen garbiak izan ziren, gainera: Onsalo-J. Mugikak Ilunpe 2koak lau tantotan utzi zituzten; Telleria-Huarte, aldiz, 10 tantoren diferentzia atera zieten arerioei; eta senior bigarren mailan Aranzabe-A. Galarragak 22-13 amaitu zuten, Beotibarren. Kadete 1. mailan Lasa-Dorronsorok ezin izan zuten egindako 7 tantoetatik pasa. Bergarakoak indartsu ibili baitziren.

EMAITZAK ▶

EUSKADIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA
Jubenilak. 1. maila, A-Saiaz.
Arguia 22 - 11 A. Mugika
Berriboxa 22 - 15 Telletxea-Galarraga
22 urte azpikoak. A-Saiaz.
Usansolo 22 - 12 Renobales-E. Galarraga
Añorga 22 - 21 Aspe-Orbegozo
Senior. Elite, A-Saiaz.
Amurrio 9 - 22 Belloso-Oteiza

UDABERRI TXAPELKETA
Kadeteak. Zazpi-Iturri.
Oizpe 22 - 1 Sukia
Lezama 22 - 18 Iraola-Artzelus
Jubenilak. Zazpi-Iturri.
Ropon-Legarreta 22 - 9 Gasteiz
Baez-Garmendia 22 - 21 Gasteiz
Elurbe-Beloki 21 - 22 Gasteiz

Zazpi-Iturri pilota eskolako ere Udaberriko Txapelketari hasiera on samarra eman zioten, nahiz eta garaipen bakarra eskuratu, kadete mailako Olaetxea-Otegi bikotearekin, Igeldoren kontra. Galduta-Huarte, aldiz, 10 tantorekin izan zen nagusien mailan, Zelaia-Leunda bikotea Eskoriatza eskolakoekin kontra. Euskadiko Kluben Artekoan hiru garaipenak onak izan dira Amezketa eskolarentzat. Hemendik aurrerako partidetan ere emaitza onak espero dituzte bi eskolek.

IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA



Ikastaroaren une batean, atzo, liburutegian. N. URBIZU

Informatika ikastaro arrakastatsua herrian

Ordenadorearen oinarrikoak ikasten ari dira helduak liburutegian, hilaren 20a arte

N. URBIZU

Iragan abenduaren lehenengo hamabostaldia izan zen ikastaro interesgarri honetan izena emateko epea. Horretan hamar lagun apuntatu ziren, eta hortxe ari dira orain, ikastaroak ematen dien abantailez gozatzen.

Oraingoan Ikaztegieta Udalak *Ordenagailuaren aplikazio praktikoak eguneroko bizitzan izeneko* ikastaroa eskaini du herritarrentzat. Honetan, besteak beste, ordenagailua nola erabili, saguaren funtzioak, artiboak nola gordea, CDak nola grabatu, ordenadorearen bidez musika nola entzun, Word programan idaztea, Excel, eta Powerpoint aritzen dira lantzen ikastaroan. Ordenadorea hobekien ezagutzeko ikastaroa, alegia. Internet ez den guztia.

Ikastaroa oso-osorik 12 egunetan burutzea espero dute, 20 ordutan. Hilaren 9an hasi zuten ikastaroa herriko li-

burutegian, eta astelehenetik ostiralera bitarte, arratsaldero bi orduz elkartzen dira ordenadorearekin lana egiteko. Hilaren 20a haien azkeneko eguna izango da ikastaroan, aipatutako helburu guztiak lortzeko beharrezko denbora igarota.

Eusko Jaurlaritzak eta Ce-banc ikastetxearekin elkarlanean egindako Etengabeko ikaskuntza izeneko proiektuaren barne egiten ari diren ikastaroa da hauxe. Alde bateatik, taldea osatzeko 10 pertsona horiek elkartzea lortu dutelako —herrikoak denak, bat izan ezik—; eta, bestalde, doan izan delako.

Sei ordenadore dituzte erabilgai; (nahiko motelak dira, egia esan), ikasle batek atzo bertan zioen bezala. Baina oso gustura daudela ere aitoru dute Marijo Azurtza donostiarra irakasle duten horiek.

Erraztasunak, beraz, helduen artean interesa duen jendeak ikas dezan.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Amezketak. Abikitutako ebexibizita berria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Pisu handia salgai, berria. Hiru logelarekin. Garaje itxia. Bikaina. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. Berritua dagoen pisu ederra. Sukaldea, jantoki-sala, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera ematen du. 41.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Legorreta. Egoera onean dagoen

baseria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Segura. Baserri individuala salgai, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56
Tolosa. Etxebizitza eraiki berria. Hiru logela eta bi komuna ditu. Apartekoa. Etxesagasti. 943 69 68 56
Villabona. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Eraberritua. Bista ederrak. 38.000.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Egongela, sukaldea, bi logela eta komuna. Bizitzera sartzeko. Trastelekuarekin. 44.000.000 pezeta.
Etxesagasti. 943 69 68 56.
Eskaera handia dela eta, ebexibizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Ibxaron zerranda dugu.

PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA

«Txapela jantzi eta ingurukoekin ospatu, bukatzeko era politena»

Elduaingoak Elizaldek zuen marka berdindu du bosgarren txapela lortu baitu Binakako Faustino Erremonte Txapelketa Auzmendirekin batera irabazi ostean



JON URBE / ARGAZKI PRESS

INIGO TERRADILLOS

Zeberio II.a eta Auzmendi dira aurtengo Binakako Faustino Erremonte Txapelketako irabazleak. Larunbatean, Galarreta pilotalekuan jokatu zuten finala Ion eta Ezkurraren aurka, eta gogotik egin behar izan zuten lan txapela eskuratzeko. Azkenean, 40 eta 32 gailendu ziren Elduaingo eta Segurakoa. Finalaren eta, oro har, txapelketaren inguruan, eta aurrera begira dituen asmoei buruz aritu da Patxi Zeberio Htzarekin solasean.

Bosgarren txapela jantzi duzu. Nola sentitzen zara?

Oso pozik. Finala espero bezala irten da, eta txapelketan, oro har, maila ona eman dugu.

Nola ikusi zenuen zuk finala?

Jokoari dagokionez, ezin esan partida polita izan zenik. Hasteko, pilotak ez ziren hain onak ez baitziren zuzen ibiltzen; eta, ondorioz, ez zuten uzten erraz jokatzin. Ez da erraza horrelakoekin lasai jokatzeko eta jokoan sartzea. Bestalde, Auzmendik eta biok hasieratik genuen asmoari eutsi genion, eta Ion kargatzeari ekin. Berak ez zuen partida hasiera egokia izan, eta guk bide horretatik jarraitzea erabaki genuen, horela posible ikusten baikenuen irabaztea. Ezkurak ere ez zuten bere maila eman, eta pilota asko galdu

DATUAK ▶

Jokatu dituen bost Binakako Erremonte Txapelketak irabazi ditu Patxi Zeberio. Irabazi berri duen azken txapelketarekin Elizaldek jarria zuen marka berdindu ahal izan du. Binakakoez gain, banaka ere hainbat sari irabaziak ditu elduindarrak.

BINAKAKOAK

1998. Aizpururekin lortu zuen txapela.

zituen. Hala ere, ez zen hain erraza izan irabaztea; izan ere, ez zuten etsi eta bi alditan ia berdintzea lortu zuten. Baina guk ere ez genuen erritmoa jaitsi eta aurrera egitea lortu genuen, eta partidaren amaierarako aldea nabaria izan zen. Esan daiteke ez genuela ikuskizun handirik eskaini, baina horrelako partidetan irabazterako joan behar da. Txapela jantzi eta gainera partida polita eskaintzen baduzu hobe, baina beti ezin da hori lortu.

Auzmendik ere bere lana bete zuen.

Bai. Sakean oso txukun aritu zen, eta baita Koteto Ezkurrari pilotak kentzen ere. Josebak, bere jokoarekin, larunbateko finalean ederki asmatu zuela esan behar da.

2001. Iriarte bikote zuela egin zen txapelarekin.

2004. Auzmendirekin batera.

2005. Urrutiarekin irabazi zuen txapelketa.

2006. Auzmendirekin jantzi berri du txapela.

BANAKA

2001. Udako Banakakoan txapeldunorde izan zen.

2005. Eguberrietako torneook txapela jantzi zuen.

Eta zu, gustura egindakoarekin?

Gustura nago. Fisikoki oso ondo aurkitzen nintzen, eta partidaren oso sartuta egon nintzen.

Zein unetan sentitu zenuen txapela buruan?

Markagailuan 33 eta 28 jartzen zuenean partidak asko okertu behar zuela guk galtzeko pentsatu nuen, eta lasaitu egin nintzen; gainera, segituan hamar tantoko aldea hartu genuen.

Partidako giroa oso polita izan zen, eta zer esanik ez partidaren amaierako ospakizuna.

Pilotalekua beterik zegoen eta giro oso berezia sortu zuten bertaratu zirenek. Ionek zituen zale gehien, gazteena delako eta beretzat lehenengo finala

zelako. Hala ere, guztion lagunak eta familiakoak han zeuden eta animoak ez ziren falta. Harmailtan horrelako festa dagoenean oso gustura jokatzen da. Bestalde, festak partida amaitzean ere jarraitu zuen, noski. Astigarragan afaldu genuen 50 lagun inguru eta senitartekorekin, eta goizalderarte luzatu zen gaua. Txapelketa bukatzeko era politena da hori, txapela jantzita eta ingurukoekin ospatzen.

Nori eskaini diozu txapela?

Julen Agirrezabalari, nire ilobari. Ea horrela azkar sendatu eta animatzen den.

Garaikurrak non gordetzen dituzu?

Ez dut leku berezirik. Txapel batzuk nire gelan ditut, eta beste batzuk gordeta.

Eta lortu ahal izango duzun hurrengoa?

Martxoan izango da hurrengo txapelketa. Pilotari osoena zein den erabakitzeko hainbat proba izango dira, baina horretarako eta udako banakakorako entrenatzen hasi aurretik astebeteko atsedendaldia hartuko dut.

Sendo ala ahul dago erremontea?

Jendeak ahul dagoela dio, baina nik ez dut hala uste. Binakako Txapelketan inoiz baino jende gehiago izan da, horien artean, gazte ugari.

IBARRA ▶

Batzarra egingo du etzi Uzta plataformak

Uzta plataformak etzi batzarra egingo du, Ibarroko kultur etxean 19:30ean.

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisita izango du Gaztainondok

Gaztainondok podologoaren bisita izango du hilaren 21ean. Ordua hartzeko 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 zenbakietara deitu behar da.

IBARRA ▶

Sendi Ekintza sagardotegiaren irekiera

Otsailaren 11n izango da Sendi Ekintza sagardotegiaren irekiera. Zubiaurren eta Sendi Ekintzan egingo da aurrez izen-ematea.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Oreandin.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ FUTBOLA

Beste hiru puntu gehiagoz, aurreneko postuari eutsiz doa

Beti Kasedanori 3 eta 1 irabazi dio Aurrerak eta Gazte Berriak-ekin batera sailkapeneko lidergoa finkatuz doa



Aurrera aurrea doa sailkapeneko, Gazte Berriak-ekin batera. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Etxean zuen partidua oraingo txandan Aurrerak, Beti Kasedanoren aurka, eta beste hiru puntu gehiago erantsi dizkio bere puntuaketera, 3 eta 1eko emaitza eskuratu eta gero.

Beste garaipen bat gehiago lortu du, beraz, Aurrerak Liga honetako hamabosgarren jardunaldian, eta 32 punturen jabe da, sailkapeneko buruan, partidu bat gutxiagorekin, Gazte Berriak kide duela. Helbu-

ruak betez doaz leitzarrek, iguera fasea jokatuko duten taldeen artean egotea, alegia, eta taldea talde egina dagoela frogatzen ari dira astez aste lortzen ari diren emaitza onak horren adierazgarri.

Herenegun hotz handia egiten zuen Arkixkilen, baina betirako zaletuak bertan zirela, beste garaipen bat gehiago eskuratu zuten Irujok eta Arrizurietak prestatzen dituzten jokalariek. Lehen zatia ez zen polita izan, eta nahiko justu ibili ziren: az-

ken lekuetan dagoen Beti Kasedanok ez zuen galtzekorik eta leitzarrek ez zuten zelaian beren domeinua ezartzen asmatzen. Horrela etorri zen partiduko estraineko gola, etxekoek sartu zutena; Jabi Urriagak, aurten askotan egiten ari den gisan, falta baten zuzeneko jaurtiketa baten ondorioz sartu zuen. Baina atsedenera joaterako erriberarrek berdinketakoa sartua zuten, banako berdinketarekin joan ziren aldagelara. «Hasieran partidua itsusia izan zen», baieztatu zuten atzo Aurrerako ordezkariak beraiek, jokaldi politik gabek, «nahiko justuan», zioteenez. Baina atsedenetik bueltan bestelako kontuak izan ziren zelaian. Jokoa ikusgarritasuna irabaziz joan zen eta Aurrera nagusitu egin zen nabarmen. Horrela, 2 eta 1ekoa Jon Arangoaren eskutik etorri zen, area barrenean berak egindako jokaldi polit baten ondorioz; eta 3 eta 1eko azken emaitza, berriz, Arangoak erdiratuta, area barrenean aurreratuta bakarrik zegoen Eneko Gorostiagak sareetara botaz lortutakoa. «Partiduko azken hoge minututan oso jokaldi politik egin ginenen, taldeak jabe goa erakutsi zuen», adierazi zioten Aurrerakoek Htzari, tartean golak sartu zituztelarik.

LEITZA ▶ PILOTA

Oinatzek-eta galdu egin dute oraingo txandan

22-19koaz, Martinez de Irujok eta Eulatek eraman dute jardunaldiko puntua Labriten

ERREDAKZIOA

Aurreneko jardunaldian, Titi- nekikoan, lortutako puntua buruan, asteburu honetan jokatu den bigarrenekoa ezin eskuratu ahal izan dute Bengoetxea VI.ak eta Ruizek.

Txapeldunei dagokien gisan, gorritz jokatu zuten Martinez de Irujok eta Eulatek irabazi zieten larunbatean Labriten jokatu zuten partidua; 22 eta 19ko emaitzarekin eskuratu ere, jardunaldi honetako puntua, bigarrena dena, gainera hauentzat, bitik bi irabazi baitituzte. Aurretik zeinek irabaziko zalantza asko zeuden, eta argitu ziren, bada, guztiak. Partidu berdin samarra jokatu ondoren, egin ere.

Horrela, partidua hasi, 3-0 irabaziz hasi zuten Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek; baina aurkariak berdinketa ez ezik, aurrea hartzea ere lortu zuten, 3-5era joanez. Baina berriz ere berdinketa suertatu zen eta hala ibili ziren berdin antzean, bi bikoteak pareko, bi aurrelariak aurrean tantoa bukatzeko aukera guztiak baliatuz eta atzelarien pilotakada indartsuak tarteko, 9na jarri arte. Hortxe, urdinak aurre hartzen hasi ziren, eta 16 eta 10ekoa ikusi ahal izan zen markagailuan, partidua esku-tan zutela zirudiela. Baina gorriak berriz ere ez zeuden partidua galtzen uzteko eta susperraldia izan zuten eta nahiko parean ibili ondoren aldea ttikituz joan ziren, he-



Pilota eskolan lanean. J. A.

mezortzinako berdinketara aliatu arte. Aurrerantzean, nagusitasuna gorrirentzat izan zen, urdinen huts batzuk tarteko, besteak beste, eta 22koa eurentzat izan zen, partiduko puntuarekin batera.

Aste honetan, hirugarren jardunaldiari dagokion partidua jada, Xala eta Goñi III.aren aurka jokatzeko dute partidua Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek. Miranda de Ebron eginen ere, hilaren 20an, datorren ostiralean, gaueko hamarretan.

Goñi, zalantzan

Jakina da, ordea, Goñik eskuan min hartu zuela. Olaizolaren eta Zearraren aurkako partiduan eta zalantzan dago bere parte-hartzea. Asteazken argituko da hori. Hain zuzen ere, bihar dute material aukeraketa egitekoa, eta han ikusiko du Eugikoak jokatze-ko moduan den edo ez.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@innoennio.com
www.innoennio.com

Asteasu. 250 m2-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!
Belauntza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. Lokal komertziala alokairuan 60 m2-koa. Salmentan edo alokairuan.

Ibarra. Euskalerra. 3 logela. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua. 249.420 euro.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak.

Tolosa. Alde Zaharrea hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Erremontari. Hormigoizko estruktura. 2 logela. Oso egoera onean. Trastelekuarekin.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Berazubi. 2 logelako etxebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 234.395 euro!

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro.

Tolosa. Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena. 330.560 euro.

Tolosa. Zezen Plazan. 87 m2-ko etxebizitza berritzeko jogailluarekin.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behean: garajea, komuna eta txokoa.

Txarama inguruan. 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Laskurain. 80 m2 bizitzin jartzeko modukoa. 297.500 euro.

Tolosa. Ibaratik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.

Tolosa. Erdialdea (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean!! 4 logelako etxebizitza ederra, garajearekin salgai.

Tolosa. Trinkete. Garajea alokairuan.

Tolosa. Erdialdean 253 m2-ko lokala (bi solairutan banatua) salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabiloi industrialak alokairuan.

Villabona. 24.400 m2-ko lursaila eta 140 m2-ko borda.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Kutxaren laguntzarekin, eskulanak eta lore sendagaien ikastaroak antolatu nahi ditu Udalak Etxolan. Izen-ematea, 943 32 66 66an (Miguel Arrieta) edo 943 68 32 94an (udaletxea).
Tolosa. Inauterietako karroza eta konpartsen bilera. 19:30ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Arrantza egiteko lizentziak gaur eta etzi tramitatuko dituzte Tolosako Arrantzaleen egoitzan (Soldadu kalea), 19:00etatik 20:30era.
Tolosa. Peñascal fundazioak soldadura ikastaroa antolatu du langileentzako etengabe formazio planen barruan, doan. Informazioa, 943 67 61 61an.
Villabona. Aizkardi mendi elkarteak Luhosoa-Baigura-Orzaize (Lapurdi-Nafarroa Beherea) zeharkaldia antolatu du iganderako. Izen-ematea, elkartearen.

HITZALDIAK

Tolosa. Xabier Tolosa orientatzaileak *Autoestima nola landu gure seme-alabekin* hitzaldia emango du Orixe institutuan, 19:00etan, DBH4ko eta Batxilergoko ikasleen gurasoentzat.
Tolosa. Parkinson gaitzari buruzko hitzaldia. 19:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Irulegi irratiak eskaintako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Altzo eta Tolosa

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Enarak, Anek, Leirek eta Mirenek ere beren herriari buruz egindako marrazki bana ekarri dute HITZARA



ALTZO ▶

Enara Amiano (6 urte, Altzo).

Bere marrazkian jasotakoa azaldu digu Enara gure lagunak: «Altzotik Otsabio mendia ikusten da».



TOLOSA ▶

Leire Alargunsoro (8 urte, Tolosa).

Leire gure lagun tolosarrak ere ekarri digu bere marrazkia HITZARA: *Araba etorbideko parkea* jarri dio izena bere lanari.



TOLOSA ▶

Ane Ezeiza (8 urte, Tolosa).

«Hau Plaza Berria da, eta niri gehien gustatzen zaidan parkea du», dio Anek bere marrazkiaren atzealdean.



TOLOSA ▶

Miren Alargunsoro (5 urte, Tolosa).

Gure lagun Mirenek, berriz, Gabonak aukeratu ditu bere marrazkirako: «Eguberri on!» opatu digu guztioi.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Josu Iñaki Sukunza
(Leitza). Gaur 8 urte.
Zorionak etekoan partetik.



URTE ASKOAN
Kornelio Urkiaga (Tolosa).
Gaur 98 urte.
Zorionak denon partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!